| **2. ERANSKINA: EUSKARA SAILA** | **ANEXO 2: ÁREA DE EUSKARA** |
|---|---|

| **2.5. UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEAN PARTE HARTZEN DUTEN HERRITARREI DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK.** | **2.5. BASES ESPECÍFICAS DE CONCESIÓN DE SUBVENCIONES A LAS PERSONAS QUE PARTICIPAN EN CURSOS ORGANIZADOS POR LA UNIVERSIDAD VASCA DE VERANO.** |
|---|---|
| **1. Xedea.** | **1. Objeto.** |
| Deialdi honen xedea da 2009. urtean Udako Euskal Unibertsitateak antolatutako ikastaroetan parte hartzen duten herritarrei bekak emateko baldintzak arautzea. | Es objeto de la presente convocatoria la regulación de la concesión de becas para las personas que participen en cursos organizados por la Universidad Vasca de Verano durante el ejercicio de 2009. |
| **2. Onuradunak.** | **2. Personas beneficiarias** |
| Arrasateko udalerrian erroldaturik dauden pertsona fisikoek eskatu ditzakete oinarri hauen bidez arautzen diren dirulaguntzak, baina dirulaguntza xede den ikastaroa egitean erroldaturik daudenean. | Las subvenciones que se regulan a través de estas bases, podrán ser solicitadas por aquellas personas físicas que estén empadronadas en el municipio de Arrasate durante la realización del curso objeto de subvención. |
| Programa honetako aplikazio eremutik kanpo daude pertsona juridikoak. | Quedan excluidos del ámbito de aplicación del presente programa las personas jurídicas. |
| **3. Bete beharreko baldintzak.** | **3. Requisitos a cumplir** |
| Baldintza hauek bete behar dira dirulaguntza jasotzeko: | Para la percepción de la subvención se deberán cumplir los siguientes requisitos: |
| a) Arrasaten erroldaturik egotea, gutxienez ikastaroa egitean. | a) Estar empadronada/o en Arrasate como mínimo durante la realización del curso. |
| b) Ikaslea izatea, betiere 30 urtetik beherakoa. | b) Ser estudiante, menor de 30 años. |
| **4. Aurkeztu beharreko agiriak.** | **4. Documentación a presentar.** |
| Eskabideekin batera, agiri hauek aurkeztu behar ditu eskatzaileak: | Junto con la solicitud, el solicitante deberá presentar la siguiente documentación: |

| | |
|---|---|
| a) Errolda agiria | a) Certificado de empadronamiento. |
| b) Udako Euskal Unibertsitatearen ikastaroaren matrikularen ordainagiria. | b) Recibo de la matrícula del curso de la Universidad Vasca de Verano. |
| c) Eskatzailea ikaslea dela egiaztatzen duen agiria. | c) Certificación que acredite que la condición de estudiante del solicitante. |
| d) Ikastaroa 2009ko urtean bertan bukatu izana. | d) Haber finalizado el curso dentro del año 2009. |
| e) Oinarri-arau orokorretako 7. artikuluan datorren moduan, egiaztatzea egunean dituela Administrazioko zerga obligazioak. | e) Acreditar, de la forma prevista en el artículo 7 de las bases generales, que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias frente a la Administración. |
| **5. Eskabideak aurkezteko epea** | **5. Plazo de presentación de las solicitudes** |
| Ikastaroa bukatu eta hurrengo bi hiletan aurkeztu ahal izango dira eskabideak. | Las solicitudes podrán ser presentadas dentro de los dos meses posteriores a la finalización del curso realizado. |
| Edozelan ere, dirulaguntza eskabideak aurkeztu daitezke Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean deialdi hau argitaratzen denetik hil bateko epean. | En todo caso, se podrán presentar solicitudes de subvención en el plazo de un mes contado a partir de la publicación de la presente convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa. |
| **6.- Izapidetzeaz arduratzen den saila.** | **6. Departamento encargado de la tramitación** |
| Euskara sailak izapidetuko ditu eskabideak. | Las solicitudes serán tramitadas por el departamento de Euskera |
| **7. Eskabideak baloratzeko irizpideak.** | **7. Criterios de valoración de las solicitudes** |
| Bekaren zenbatekoa izango da: ikasleak ordaindutako matrikula prezioaren erdia. | El importe de la beca consistirá en una ayuda equivalente a la mitad del precio de matrícula abonado por el alumno. |
| **8. Aurrekontua.** | **8. Presupuesto.** |
| Programa honen bidez deitutako arautukako dirulaguntzen zenbatekoa da 600 €, eta finantzatuko da "1.10.00.480.455.01.01 – Euskarako bekak" kontu sailaren kontura. | El importe de las ayudas convocadas a través del presente programa asciende a la cantidad de 600 €, y será financiado con cargo a la partida presupuestaria "Becas Euskera 1.10.00.480.455.01.01". |

| | |
|---|---|
| Aurrekontuaren kopurua iritsiko ez balitz dirulaguntza jasotzeko eskubidea duten eskabide guztiak betetzeko, handitu egingo da kopuru hori, udal aurrekontuak betetzeko oinarri-arauetan aurreikusitako kredituak aldatzeko mekanismoen bidez. | Si la dotación presupuestaria no alcanzara a cubrir el total de solicitudes con derecho a ayuda, se procederá, a través de los mecanismos de modificación de créditos previstos en las bases de ejecución del Presupuesto Municipal, a su oportuna ampliación. |
| **9. Dirulaguntzak justifikatzea** | **9. Justificación de las subvenciones** |
| Oinarri-arau espezifiko hauetako 4. artikuluan eskatzen diren agirien bidez justifikatuko dira dirulaguntzak; dirulaguntza eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak dira. | Las subvenciones serán justificadas mediante los documentos requeridos en el artículo 4 de las presentes bases específicas, a presentar conjuntamente con la solicitud de subvención. |
| **10. Ordainketa** | **10. Pago** |
| Dirulaguntzak ordainketa bakar baten bidez emango da, behin dirulaguntza ematea erabaki eta gero. | La subvención será abonada, previa justificación, en un único pago, en el plazo de un mes contado a partir de la adopción del acuerdo de concesión. |
| **11. Klausula gehigarria** | **11. Cláusula adicional** |
| Oinarri-arau espezifiko hauetan berariaz jasotzen ez den guztian, oinarri orokorretan xedatutakoari lotuko zaio, bai eta Dirulaguntzen Udal Ordenantzan eta Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrean eta legezko gainerako aplikazio xedapenetan xedatutakoari ere. | En todo lo no recogido expresamente en las presentes bases específicas, se estará a lo dispuesto en las bases generales, así como en la Ordenanza Municipal de Subvenciones y en la Ley 38/2003, General de Subvenciones y demás disposiciones legales de aplicación. |